

## BILBOKO KALEALDIA KALEKO ANTZERKI ETA ARTEEN JAIALDIAREN 21. EDIZIOA IRAILAREN 22TIK 27RA BITARTEAN EGINGO DA, NAZIOARTEKO 26 KONPAINIAREN 70 EMANALDI BAINO GEHIAGOREKIN

- Jaialdiak Estatu mailako hiru estreinaldi eskainiko ditu, Barsanti Cia, Deabru Beltzak eta Mystérieuses Coiffures konpainien eskutik, eta beste hiru estreinaldi Euskadi mailan (Balbàl Company, Claire Ducreux & Toni Mira eta Daraomaï Cie taldeenak).
- Bilboko Kalealdiaren edizio honetako emanaldietan sarrera librea eta dohainik izango da beti, salbu eta ‘Bye bye, Confetti’ lanean (La Baldufa-reña), gonbidapena beharko baita.
- Bilboko Kalealdiaren kartela osatzen duten 26 taldeetatik 13 Euskal Herrikoak dira: jaialdiak apustu garbia egiten du bertoko kulturaren alde eta hemen dauzkagun punta-puntako proposamenen alde.
- Casilda Iturrizar parkea berriro ere estali gabeko antzoki handi bat izango da. Hiriko beste leku ezagun batzuek ere euren protagonismoa izango dute jaialdian: Areataza, Arriagako plaza eta Plaza Barria, kasu.
- Jaialdi osoan zehar osasun-protokoloak bete beharko dira.

(*Bilbo, 2020ko irailaren 9a*). - **BILBOKO KALEALDIA** kaleko antzerki eta arteen jaialdia urtero antolatzen du Bilboko Udalak. Aurtent, jaialdiaren **21. edizioa izango da, irailaren 22tik 27ra, azken hilabeteetako osasun-krisiaren ondorioz birprogramatu egin baita**. Programazioa kalitatezkoa eta askotarikoa da, adin guztiatarako pentsatua. Iraileko aste horretan, baina, **BILBOKO KALEALDIAK nazioarteko 26 konpainiaren 73 emanaldi eta 27 ikuskizun eskainiko ditu**. Hala aurreratu dute gaur goizean, prentsurrekoan, Gonzalo Olabarria Kulturako zinegotziak eta Pedro Ormazabal Jaialdiko zuzendariak.

Datorren udazkenean, **BILBOKO KALEALDIKO ikuskizunak** hiriko zazpi espaziotan egingo dira: **Casilda Iturrizar parkea, Areataza kaia, Areataza, Arriagako plaza, Arriagako antzokiko alboa, Bizkaia Aretoa – UPV/EHU eta Plaza Barria**. Emanaldiok hainbat diziplinatakoak izango dira: kale-antzerkia, zirkoa, dantza, dantza bertikala, clown, musika eta instalazio eszenikoak. Horrela, iraileko egun horietan Bilbo biziz eta kulturaz beterik hiri bat izango da.

Jaialdiaren edizio berri honetara gonbidatutako konpainia guztietatik 13 Euskal Herrikoak dira: jaialdiak apustu garbia egiten du bertoko kulturaren alde eta hemen dauzkagun punta-puntako proposamenen alde. Horiez gain, Bilboko Kalealdian Estatuko 10 konpainia eta nazioarteko 3 egongo dira: bi Frantziatik etorriak (Europako erreferente nagusia kale-antzerkian), eta hirugarrena Belgikakoa. Guztiekin jaialdiko ohiko agertokietan ikusi ahalko ditugun muntaiaek ekarriko dituzte Bizkaiko hiriburura.

Casilda Iturriar parkean hasiko dira ikuskizunak, hilaren 22an (martitzena), [Mystérieuses Coiffures](#) konpainiarekin, “Boni” eta Juan Palomorekin, eta [Barsanti Cia](#) taldearekin, 17:00etan. Parkea eta Arriaga Antzokiaren plaza jaialdiko lehen egunetako agertoki nagusiak izango dira. Programazio osoa bi espazio horietan egingo da barikura arte (hilak 25). Egun horretan, emanaldiak lekuz aldatuko dira, Alde Zaharrera, hiriaren auzo ezagun hau kulturaz eta dibertsioz betetzeko, hainbat txokotan: antzokiaren alboan, Areatzako kaian, Areatzan eta Plaza Barrian.

Aurten, gainera, Bizkaia Aretoa – UPV/EHU, Abandoibarran, jaialdiari amaiera emango dion muntaiaren agertokia izango da, domekan (hilak 27), 21:00etatik aurrera: [La Glo Zirk Dantza Konpainaik ‘Sacred’](#) dantza bertikaleko ikuskizuna eskainiko du. Bilboko konpainia honen proposamenak kontatzen digu itsasorik sakonenetik galaxiarik urruneneraino dena konektatuta dagoela, eta lotura sakratu horrek bat egiten gaituela. ‘Sacred’-en, bizitzari nortasuna ematen dioten geometria jainkotiarretan zehar bidaiatzera gonbidatzen gaituzte, gogoeta egitera bultzatzen gaituen dantza eta proiekzioko ikuskizun batekin.

Bilboko Kalealdiaren edizio honetan, programazio guztia sarrera librekoa izango da. Aurrekoetan ez bezala, ez da karparik egongo. **Muntaietako bakar batean, [La Baldufa konpainia katalanaren ‘Bye bye, Confetti’ ikuskizunean, gonbidapena beharrezkoa izango da.](#)** Gonbidapenak Jaialdiaren Informazio Bulegoan eskuratu daitezke (gehienez, bi gonbidapen pertsona bakoitzeko), Areatzan, irailaren 26an (11:30-14:00 / 17:00-20:00). ‘Bye, bye Confetti’ lanak hiru pailazo erakutsiko dizkigu, Confetti euren buruzagiaren heriotzagatik negarrez. Antzezlan honetan umorea eta maitasuna barra-barra daude.

## **ESTREINALDIAK ESTATUAN ETA EUSKADIN**

**Bilboko Kalealdiko programak hiru estreinaldi eskaintzen ditu Estatuan eta beste hiru Euskadin.**

Estatuko estreinaldietan, batetik, **Barsanti Cia** dago, “**Pin, Pan, Pun, Sergio ta Erramun**” ikuskizunarekin. Bertan, hasieran osasun-protokoloa betetzen ez duen lagun arteko batzar bat zirudiena beste gauza bat da: kale-antzerkiko saio bat. Normaltasun berriaz umorez, modu ludiko eta dibertigarrian jardungo dute.

Bestalde, [Deabru Beltzak](#) euskal konpainiak ‘**Dibertidantzsa**’ musika-ikuskizuna estreinatuko du: musikaz, jolasez eta dantzaz eratutako formula berezi bat da, plaza hankaz gora jarriko duena.

Hirugarren estreinaldia **Mystérieuses Coiffures** taldearena izango da: ‘**El mundo de los colores**’.

**Euskadin estreinako aldiz ikusiko ditugun proposamenen artean [Balbàl Company](#), [Claire Ducreux & Toni Mira](#) eta [Daraomaï Cie](#) konpainiak daude.**

**Balbàl Company** frantsesek ‘**Ninguna palabra**’ lana eskainiko dute. Airean, akrobaziekin, euren mundua eta ikuspegia konpartituko dituzte publikoarekin, esekitako gorputzen laborategi bat eratuta.

**Claire Ducreux & Toni Mira**-k, aldiz, ‘**Avec Les temps**’ lanarekin, samurtasunaren, konfiantzaren eta umorearen garrantzia erakusten dute, mundu honetan aurrera egiteko beharrezkoak direlakoan. Bestalde, **Daraomaï Cie** taldea, hau ere frantsesa, ‘**Corps de bois**’ lanarekin iritsiko da gurera. Emanaldi honetan, balentria bati buruz hitz egiten dute: erortzen eta nekaezintasunez altxatzen direnei buruz, arauari erronka egiten dion gorputz bat onartzeari buruz.

## **NABARMENDUTAKO KONPAINIAK**

Programazioaren barruan, **Bucraá Circus** konpainia nabarmenzen da. Bi pailazok osatzen dute, Pau Palausek eta Fernando Villegak, biak ere erregistro artistiko eta profesional zabalekoak. Pailazo hauek ‘**El gran final**’ aurkeztuko dute. Tragikomedia bat da, eta bi pailazo berriro aurkitzen dutenekoa kontatzen du. Aspaldi banatu behar izan ziren, Gerra Zibila piztu zenean. Irailaren 22an eta 23an ikusi ahalko da, Casilda Iturrizar parkean, 19:00etan.

Aurten, “**eia**” zirku-konpainiak bi ikuskizun ekarriko ditu Bilbora. Haietako bat, ‘**inTarsi**’, elkartzearen handitasunaz eta sentimenduen eraldaketaz aritzen da. Etengabe mugitzen ari den zirkua, ikuskizun indartsu, poetiko, dibertigarri eta gizatiarra, gizakia den piztia arraro horrenganako maitasun zintzoa pizten duen unea. Ikuskizun honek sari garrantzitsuak jaso ditu, adibidez 2017ko MAX saria ikuskizun berri onenari. Irailaren 26an, zapatua, 22:00etan ikusi ahalko da Arriaga antzokiko plazan.

‘**Mulier**’ ikuskizunarekin ezusteko ederra emango die **Maduixa CIA** konpainia valentziarrak irailaren 25ean Arriaga Antzokiko plazara datozen pertsonei, 22:00etatik aurrera. ‘**Mulier**’ hanka-luzeen gaineko dantza-ikuskizuna da, bost dantzari interpretatua. Oso sari garrantzitsuak eskuratu ditu: Max saria kaleko ikuskizun onenari eta musika-konposizio onenari, Moritz Fira Tàrrega saria kaleko estreinaldi onenari, eta Umore Azoka saria ikuskizun onenari.

BILBOKO KALEALDIAK aurten **Alodeyá**, **Balbàl Company**, **Daromaï Cie** eta **Nom Provisional Cia** konpainien ikuskizunak hartuko ditu, guztiak ere “**TRAVESÍA – PIRINEOS DE CIRCO**” mugaz gaindiko proiektuak diruz lagundutakoak (Bilboko Udala proiektu horretako partaide da). Proiektuaren helburua da mugaz gaindiko espazioan zirku-artisten enplegua sustatzea, akonpainamendu-metodoak aldatuz eta sektorearen erronka berriei egokituz.

## **13 EUSKAL KONPAINIA**

**Mystérieuses Coiffures**, “**Boni**” eta Juan Palomo, Barsanti Cia, **Arriera**, **El Mono Habitado**, **Kukai Dantza**, **Markeliñe**, **Organik Dantza – Antzerki**, **Hika Teatroa**, Deabru Beltzak, **La Glo Zirko Dantza Konpainia**, **Erre Produkzioak** eta **Zanguango Teatro** euskal konpainiek euren ikuskizunik berrienak erakutsiko dizkigute jaialdiaren

testuinguruan, eta zenbait proposamen konpartituko dituzte: dantza, zirkua, kaleko antzerkia eta clowna, adibidez.

Haien artean **Markeliñeren** mutua nabarmendu beharko genuke. Konpainia honek gauarekin jokatzen du, kontraste handiko soinu-atmosfera ikusgarriak sortuz. Keinuen bidezko interpretazioa, plataforma mugikorren erabilera, dantza, txotxongilo erraldoiak eta suaren magia dira “**PSIKE**” ikuskizunaren osagai nagusiak: show dinamiko, zirraragarri, komiko eta kartsua. Irailaren 24ko 21:30ean aurkeztuko dute, Arriaga Antzokiaren plazan.

‘**Kirol legez / Fair play**’ emanaldia ere, **Kukai Dantzarena**, aipatu beharko genuke. Musikak protagonismo berezia dauka ikuskizun honetan, sei dantzarirekin eta DJ batekin, zuzenean (irailaren 23an, 21:30ean, Arriaga Antzokiko plazan). Gasteizko **Zanguango Teatro** konpainiaren saioa ere aipagarria da: ‘Al otro lado’. Ikuskizun honetan, zenbait pertsonaia kalera irtengo dira, teloi mugikor batekin, eta aurkitzen dituzten eguneroko bizitzako eszenen alderdi magiko eta harrigarriak erakutsiko dizkigute (irailaren 27an, domeka, 17:30ean eta 19:30ean, Areatzan).

Modu berean, “**EDEN**” ikuskizuna aipatu behar dugu, Arriera konpainiarena. KARRIKAN plataformaren laguntzaren laugarren deialdiko bi proiektu irabazleetako bat izan da.

## **CASILDA ITURRIZAR PARKEKO AGERTOKIA**

Casilda Iturrizar parkea Bilboko Kalealdiko agertoki nagusietako bat izango da berriro ere. Bertako apainketa, aurten ere, **Mystérieuses Coiffures-en** eskutik etorriko da, loreen erabateko protagonismoarekin. “Koloreen mundua” proposamenarekin, parkera hurbiltzen diren pertsonak zur eta lur geratuko dira. **Parke honetan egingo dira 73 ikuskizunetatik 33, irailaren 22, 23 eta 24an.**

## **OSASUN-SEGURTASUNA**

Osasuneko protokoloak zorrotz beteko dira ekitaldi guztietai, osasun-segurtasuna ahalik eta gehien bermatzeko. Halaber, maskara derrigorrezkoa izango da Bilboko 2020ko Kalealdiko ekitaldi guztietai.

Bilboko Kalealdiko ikuskizunen egunak eta ordutegiak eta bakoitzaren informazioa erantsitako txostenean eta **esteka honetan** ikusi daitezke.

## **SARE SOZIALAK**

Facebook: [www.facebook.com/bilbokokalealdia](http://www.facebook.com/bilbokokalealdia)

## **INFORMAZIO GEHIAGO**

[www.bilbokokalealdia.eus](http://www.bilbokokalealdia.eus)

## LA 21<sup>a</sup> EDICIÓN DE BILBOKO KALEALDIA-FESTIVAL DE TEATRO Y DE LAS ARTES DE LA CALLE TENDRÁ LUGAR DEL 22 AL 27 DE SEPTIEMBRE CON MÁS DE 70 ACTUACIONES DE 26 COMPAÑÍAS INTERNACIONALES

- El festival acogerá tres estrenos a nivel estatal – de la mano de las compañías Barsanti Cia, Deabru Beltzak y Mystérieuses Coiffures- y otros tres en Euskadi – con las propuestas de Balbàl Company, Claire Ducreux & Toni Mira y Daraomaï Cie.
- Las actuaciones de esta nueva edición de BILBOKO KALEALDIA serán de acceso libre y gratuito en todos los casos, excepto ‘Bye bye, Conffeti’, de La Baldufa, que precisará de invitación.
- De las 26 compañías que completar el cartel de Bilboko Kalealdia, 13 son vascas en un claro apoyo del festival a la cultura local y sus múltiples propuestas de primer nivel.
  - El Parque de Doña Casilda vuelve a tornarse un gran teatro al aire libre y otros lugares emblemáticos de la ciudad como el Arenal, la Plaza del Arriaga o la Plaza Nueva también tendrán protagonismo en este Festival.
  - Los protocolos sanitarios serán de obligado cumplimiento durante todo el desarrollo del Festival.

(Bilbao, 9 de septiembre de 2020).- El **Festival de Teatro y de las Artes de la Calle-BILBOKO KALEALDIA**, que cada año organiza el Ayuntamiento de Bilbao, celebra este año su **21<sup>a</sup> edición del 22 al 27 de septiembre**, tras reprogramarse por las circunstancias derivadas de la crisis sanitaria de los últimos meses. Con una programación de calidad, diversa y pensada para todos los públicos, esa semana de septiembre, **BILBOKO KALEALDIA ofrecerá 73 actuaciones de 26 compañías internacionales y 27 espectáculos**, así lo han adelantado, esta mañana en rueda de prensa, el **Concejal de Cultura**, Gonzalo Olabarria, y el **Director del Festival**, Pedro Ormazabal.

Este otoño, los diferentes espectáculos de BILBOKO KALEALDIA se desarrollarán en **siete espacios** de la ciudad: **Parque de Doña Casilda, Muelle del Arenal, Arenal, Plaza Arriaga, Lateral del Teatro Arriaga, Bizkaia Aretoa – UPV/EHU y Plaza Nueva**, y abarcarán disciplinas como el **teatro de calle, el circo, la danza, la danza vertical, el clown, la música e instalaciones escénicas** que harán de **Bilbao esos días de septiembre una ciudad llena de vida y de cultura**.

Del total de compañías invitadas a esta nueva edición del Festival, **13 son vascas en muestra del claro apoyo del festival a la cultura local y sus múltiples propuestas de primer nivel**. Junto con éstas, estarán en Bilboko Kalealdia 10 compañías del resto del Estado y tres internacionales -dos llegan desde Francia, país que es un gran referente europeo en teatro de calle, y otra desde Bélgica-. Todas ellas aterrizarán en la capital

vizcaina con montajes que el público podrá disfrutar en los escenarios habituales del Festival.

En el **Parque de Doña Casilda** será el escenario en que arranquen los espectáculos el martes 22 con la actuación de las compañías [Mystérieuses Coiffures](#), “**Boni” eta Juan Palomo y Barsanti Cia** a las 17:00 horas. El parque, junto con la Plaza del Teatro Arriaga, serán los escenarios principales de los primeros días del festival y acogiendo toda la programación del mismo hasta el viernes 25, momento en el que las **actuaciones cambiarán de escenario y se desplazarán al Casco Viejo** para llenar esa parte emblemática de la ciudad de cultura y diversión en emplazamientos como el lateral del Teatro, el Muelle del Arenal y el propio Arenal y la Plaza Nueva.

Este año, además, el **Bizkaia Aretoa – UPV/EHU en Abandoibarra** acogerá el montaje que pone fin a esta nueva edición del Festival, el domingo 27 a las 21:00 horas de la mano de [La Glo Zirko Dantza Konpainia](#) y su espectáculo de danza vertical ‘**Sacred**’. La propuesta de esta compañía de Bilbao cuenta como, desde lo más profundo del mar hasta la más lejana de las galaxias, todo está conectado y cómo ese es el vínculo sagrado que nos une. En ‘Sacred’ se propone un viaje por todas estas geometrías divinas que dan carácter a la vida con un espectáculo de danza y proyección que invita a reflexionar.

En esta edición de Bilboko Kalealdia toda la **programación será de acceso libre**, y a que, a diferencia de otros años, no habrá carpa. Sólo uno de montajes programados, el de la compañía catalana el espectáculo ‘**Bye bye, Confetti**’ de [La Baldufa](#) precisa de invitación para entrar al mismo. Estas **invitaciones** se pueden adquirir (máximo dos por persona) en la **Oficina de Información del Festival** situada en el Arenal el **26 de septiembre** (11:30-14:00 horas / 17:00-20:00 horas). ‘**Bye, bye Confetti**’ muestra cómo tres payasos lloran la muerte de su líder, Confetti, en una obra de teatro en la que hay humor y amor a partes iguales.

## **ESTRENOS ESTATALES Y EN EUSKADI**

El programa de Bilboko Kalealdia cuenta con tres estrenos a nivel estatal y otros tres en Euskadi.

Respecto a los estrenemos estatales, por un lado, **Barsanti Cia**, con su espectáculo “**Pin, Pan, Pun, Sergio ta Erramun**”, donde cuentan cómo lo que en principio parecía una reunión de amigos que no respetaba los protocolos sanitarios es en realidad una función de teatro callejero que se aprovechará para hablar con humor, manera lúdica y divertida de la nueva normalidad.

Por otro lado, la compañía vasca [Deabru Beltzak](#) también estrena su espectáculo musical ‘**Dibertidanza**’ que consiste en una fórmula especial compuesta de música, juegos y baile pondrá patas arriba la plaza.

Y el tercero de estos estrenos será el de **Mystérieuses Coiffures** y su ‘**El mundo de los colores**’.

Entre las propuestas que podrán verse por primera vez en Euskadi figuran las compañías [Balbàl Company](#), [Claire Ducreux & Toni Mira](#) y [Daraomaï Cie](#).

Los franceses **Balbàl Company** mostrarán su obra '**Ninguna palabra**' en la que el marco aéreo, con acrobacias, comparten con el público su mundo y su punto de vista, un laboratorio de estados de cuerpos suspendidos.

En el caso de **Claire Ducreux & Toni Mira**, con '**Avec Les temps**', muestran la importancia de la ternura, la confianza y el humor para aprender a avanzar por este mundo; y, por su parte, los también franceses **Daraomaï Cie** llegan a Bilboko Kalealdia con '**Corps de bois**'. En este show nos hablan de una proeza, la de quienes caen para levantarse con tenacidad, la de asumir un cuerpo que desafía la norma.

## **COMPAÑÍAS DESTACADAS**

Dentro de la programación destaca la compañía [Bucraá Circus](#), formada por dos payasos, Pau Palaus y Fernando Villella, ambos con un gran registro artístico y profesional, presentarán '**El gran final**', una tragicomedia que basa su esencia en el reencuentro de dos payasos, los cuales tuvieron que separarse hace muchos años a consecuencia del estallido de una Guerra Civil. Podrá disfrutarse los días **22 y 23 de septiembre en el parque de Doña Casilda Iturrizar a las 19:00 horas**.

Este año, la compañía la [Compañía de Circo "eia"](#) mostrará en Bilbao dos espectáculos. Uno de ellos, '**inTarsi**' es una reflexión sobre la grandeza del encuentro y la transformación de los sentimientos. Un circo en continuo movimiento, un espectáculo poderoso, poético, divertido y humano, un momento que despierta un sincero cariño por esta extraña bestia que es el ser humano. Este espectáculo ha recibido premios tan importantes como el **Premio MAX 2017** al Mejor espectáculo revelación. Podrá verse el sábado 26 a las 22:00 horas en la Plaza del Teatro Arriaga.

'**Mulier**' será el show con el que la compañía valenciana [Maduixa CIA](#) sorprenda a quien se acerque a verles a la **Plaza del Arriaga el 25 de septiembre a las 22:00 horas**. '**Mulier**' es un espectáculo de danza sobre zancos interpretado por cinco bailarinas y se ha hecho con galardones tan potentes como el Premio Max al Mejor espectáculo de calle y a la mejor composición musical, así como con el premio Moritz Fira Tàrrega al Mejor estreno de calle y el premio Umore Azoka al Mejor espectáculo.

BILBOKO KALEALDIA acogerá este año los espectáculos de las compañías [Alodeyá](#), [Balbàl Company](#), [Daromaï Cie](#) y [Nom Provisional Cia](#), todos ellos subvencionados por el proyecto transfronterizo "**TRAVESÍA – PIRINEOS DE CIRCO**", del que forma parte el Ayuntamiento de Bilbao y que tiene como objetivo promover el empleo de artistas de circo en el espacio transfronterizo transformando los métodos de acompañamiento y adaptándolos para enfrentar los nuevos desafíos para a los que se enfrenta el sector.

## 13 COMPAÑÍAS VASCAS

Mystérieuses Coiffures, “Boni” eta Juan Palomo, Barsanti Cia, [Arriera](#), [El Mono Habitado](#), [Kukai Dantza](#), [Markeliñe](#), [Organik Dantza – Antzerki](#), [Hika Teatroa](#), Deabru Beltzak, La Glo Zirko Dantza Konpainia, [Erre Produkzioak](#) y [Zanguango Teatro](#) son las compañías vascas que mostrarán sus montajes más recientes en el marco del festival y que compartirán en el mismo diferentes propuestas que abarcan desde la danza, el circo, el teatro de calle o el clown.

Entre ellas, cabe destacar el montaje que trae **Markeliñe**. La compañía juega con la noche generando atmósferas sonoras y visuales de mucho contraste. La interpretación gestual, el uso de plataformas móviles, la danza, títeres gigantes y la magia del fuego, entre otros recursos, hacen de “**PSIKE**”, el espectáculo que traen, un show dinámico, vibrante, cómico, emocionante. Lo presentarán a las 21:30 horas del 24 de septiembre en la Plaza del Teatro Arriaga.

También merece mención la propuesta de ‘**Kirol legez / Fair play**’, de **Kukai Dantza**, en la que la música cobra un protagonismo especial con un espectáculo en el que participan seis bailarines y un DJ en directo (23 de septiembre, a las 21:30 horas en la plaza del Teatro Arriaga) y la de la compañía de Gasteiz **Zanguango Teatro**, que en ‘Al otro lado’ nos presentan personajes que salen a la calle con un telón portátil descubriendo facetas mágicas y desconcertantes de escenas cotidianas que van encontrando a su paso (17:30 y 19:30 horas el domingo 27 en el Arenal).

Asimismo, destacar que el espectáculo ‘**EDEN**’ de la compañía **Arriera** ha sido subvencionado como uno de los dos proyectos ganadores de la cuarta convocatoria de ayuda de la **Plataforma KARRIKAN**.

## ESCENARIO PARQUE DE DOÑA CASILDA ITURRIZAR

El **Parque de Doña Casilda** volverá a ser uno de los escenarios principales de Bilboko Kalealdia y la decoración del mismo correrá a cargo, este año también de **Mystérieuses Coiffures**, que sorprenderán a quien se acerque al parque con su propuesta ‘**El mundo de los colores**’, donde los motivos florales serán protagonistas. **El parque acogerá 33 de los 73 espectáculos programados en el festival los días 22, 23 y 24 de septiembre**.

## SEGURIDAD SANITARIA

Los protocolos sanitarios serán de estricto cumplimiento para garantizar la máxima seguridad sanitaria. Asimismo, la mascarilla será obligatoria en todos los eventos de Bilboko Kalealdia 2020.

El calendario con todas las fechas y horarios de los espectáculos de Bilboko Kalealdia, así como la información sobre cada montaje puede consultarse en el dossier adjunto y en el [siguiente enlace](#).

**REDES SOCIALES:**

Facebook: [www.facebook.com/bilbokokalealdia](https://www.facebook.com/bilbokokalealdia)

**MÁS INFORMACION**

[www.bilbokokalealdia.eus](http://www.bilbokokalealdia.eus)